

BOTANIKA LEXIKOA EIBARREN ETA TORIBIO ETXEBARRIAREN LEXICON LANARI GEHIGARRIAK

Donostia, 1990-II-30

Juan San Martin

I. BOTANIKA LEXIKOA

Argi dagoena da era honetako zenbait gaitan hitzei lekukotasun zehatza eman beharrean gaudela. Azkueren hiztegia begiratzen maizegi irakur ditzakegu euskarazko hitzaren ordainez, gazteleeraz, "cierto pájaro" edo "especie de pez" eta halakoak. Ez hainbeste botanika hitzetan, lehendik Lakoizketak eta T. Aranzadik egin zuten lanei esker. Hala ere, hor datoz sasi-medikuentzat hain ezaguna den *zorna-belarra* eta txorien ihizan ibiltzen direnek udaberrian hain maite duten *txori-keriza*, batean: "**pasmo-bedar**, cierta hierba medicinal parecida a la malva", eta bestean: "**txori-keriza**, variedad de cereza muy pequeña y dulce". Toribio Etxebarriaren *Lexicón* (1) lanean ere nabari dira halakoak.

Erderrazko ordaina jartzea ez da gaizki; baina zientzia katalogoetako kodeak jartzea ere beharrezkoa da hitzak edonon balioa izateko. Zehatztasun horiek egiten bait dute hitza erabilgarriago. Eta, guk, oraindik ez ditugu osatu tokian tokizko hitzak eta horren arabera zientziakoan kokatu; ondorioz, guzien ikuspegitik batasunerako testu hornitzez arautzearen eskaintzaz.

Egia esan, halako lanak, inguru jakin batean luzaz eta bare jokatzu egitekoak dira, bere egoera naturalean ikusiz eta gauzatuz, izenak ezagutzen dituztenen laguntzaz eta botanika esku-liburua gidari delarik.

Burdin langintzako hitz teknikoen bilketa hura (2) oso erreza izan nuen, ogibidezko lanean berez eskuratu nituenez; baina perretxiku eta

(1) TORIBIO ETXEBARRIA, "Lexicón del euskera dialectal de Eibar", *Euskera*, X-XI, 1965-66, 1-658 orr.

(2) JUAN SAN MARTIN, "Eibar'en erabiltzen diran burdin langintzako itz teknikoak", *Euskera*, 1958, III, 141-158 orr. Eta "Eibar'en teknika gaietan egin dan eboluziñoari buruz",

txori izenak (3) zehatz-mehatz biltzeak epe eta neke gehiago eskatu zizkidaten.

Lan horiekin bateratsu hasi nuen landareena ere, baina gai honetan jakitunik guti aurkitu nuen Eibarren. Edonorentzat, norbere sorterrria bait da halako lanak ziurtasunik handienez egin ahal izateko tokia, eta hitz bilketarako lanok neure herrira mugatuak burutu nituen.

Oraingo bilketa honek beste lan bat ere sortu dit, laster Mitxelena zenaren omenez, J. Urkixo Mintegiak eskainiko duen liburuan agertzeko dena: "Botanika lexikoa Eibarko etxe izenetan", era berean gure herriko zenbait deituraren etimologiaz argigarri izango dena.

Nere lanerako, zuhaitz eta landareen aurrez-aurrezko galdeaz gainera G. López de Guereñu euskaltzain ohorezkoaren *Botánica popular alavesa* (1975) liburuaz bestalde Barcelonako Omega argitaletxearen bi esku-liburu erabili ditut oinarritzat, euskarazkoari gaztelerazko eta zientziatiko izenak erantsiz eman ahal izateko: M. Blamey eta R. Fitter-en *Pequeño manual de las plantas silvestres de Europa* eta G. Krüssmann-en *Guía de campo de los árboles de Europa* bereziki.

Azpimarra dezadan hemen agertzen ditudan landare hitzak oso arruntak direla edonongo euskaldunarentzat, baina gaurko honen egitekoa zerrenda hitzez-hitzez euskarazkoa, gaztelerazkoa eta zientzia kodea jartzea da.

Zuhaitz motak eta horien fruitu izenak, bete beharrezko beste lan bat dugu. José Uria adiskideak *Sagardoa* liburuan zerrenda polita eman zigun sagar motei buruzkoan, baina beste horren beste egin beharra dugu gainerakoetan ere.

Eibarren ezagutzen ditugun sagar motetatik gogoratzen ditudanak: San Juan sagarra, urdin sagarra, boskantoia, urtebetia, erreineta edo errege sagarra (guretzat geroztik sartua da Erretzil sagarra), asiloka, geza miña, geza gorri, libra sagarra, txaraka edo txaraka sagarra, sagar-makatza, kuku sagarra, eta abar.

Eta horien saboreaz zer esan? Badira, gazia, geza, gazi-geza eta mingotsaz gainera beste zenbait izen.

Keriza (gereza) motak gutiago dira, baina horietan ere, gindaz aparte, badira txori keixa, keixa baltza, anpolarixa, keizbera, eta abar. Okaranak

1959, IV, 127-138. Geroago, hitz soilak gehigarriz beste honako nomenklatura honetan: "Léxico técnico empleado en la industria metalúrgica Eibarresa", *III Semana de Antropología Vasca*, Bilbao, 1976, Tomo II, 375-381 orr.

(3) JUAN SAN MARTIN, "Perritxiku izenak Eibarren", *Euskera*, 1975, XX, 317-324 orr. eta "Txori izenak Eibarren", *Euskera*, 1979, XXIV, 217-277 orr.

ordea, klaudiokarana, okaran gorria, okaran zuria, okaran tximillua, okaran baltza,... Gaztainan ere bai, txapardia, atalaua eta beste.

Hemen orain aurkezten ditudanak, zuhaitz, landare eta zenbait belarren izenak dira, ehun eta hogeitazazpi izen, euskaraz, gazteleraz eta ondotik zientzia gaietarako kodetzat erabiltzen den latinezkoa.

Lekukotasun horiez gainera, Eibarko toponimian, edo etxe izenetan izen horietako batzuk noiztik agertzen diren ere ipintzen dut, agiri zaharren arabera. Zerrenda osoa irakurtzea alferrikakoa ez ezik aspergarri iduritzen zaidanez, hara hemen pare bat lekukotasun, adibidetzat: **ametz**, **ametz**a, quejigo, *Quercus pyrenaica* (Amezabalegi, etxea, 1498; Ametzaga, leku-izena, 1857); **ira**, **iria**, helecho, helecho común, *Pteridium aquilinum* (Iraegi, leku-izena, 1339 eta etxea 1493; Irragorri, etxea, 1600); **pago**, **pagu**, haya, *Fragus Sylvatica*. (Pagamendi eta Pagobiet, leku-izenak, 1493; Pagaegi, etxea, 1498; Pagoaga, etxea, 1595); **untz**, **untza**, hiedra, *Hedera helix* (Unzueta, torretxea, 1193; Untzeta, etxea, 1609). Hitzen historiarako hain beharrezkoak izanik, zoritxarrez, guti baizik ez dira horrela lekukotzea lortu ahal izan ditudanak.

Eta landareen morfologiak zer esan? Hori da oraindik bete beharrezko lana.

Betor bilketa osatze lana aurrez eta ez ondoren; bilketaren osakuntza izan bedi nomenklaturen hornigarri eta ez alderantziz.

Honen bestez bukatzen dut botanika lexikoaren aurkezpen hau.

agarratza: uva de espina, *Ribes uva-crispa*. *Rubus grosularia* L.

agin: tejo, *Taxus baccata*. (Aginaga, auzoa, 1597; Agindi, leku-izena, 1498).

aixen, **aixena**: enredadera, corregüela, *Calystegi sepium* eta *Colvolvulus arvensis*.

alberretxikua: albérchigo, *Prunus armeniaca*.

albi, **albixa**: heno, *Holcus lanatus*.

albizuri: heno blanco, *Holcus mollis*. (Albizuri, etxea eta deitura, 1498).

alfalfa, **alfalfia**: alfalfa, *Medicago sativa*.

allorbi, **allorbia**: alholva, *Trigonella foenum graecum*.

altz, **altza**: aliso, *Alnus glutinosum* (L.) Gaertn. (Alzu, etxea eta deitura, XVI. mendean; Altzaga, leku-izena, 1793).

ametz, **ametz**a: quejigo, *Quercus pyrenaica*. (Amezabalegi, etxea, 1498; Ametzaga, leku-izena, 1857).

anisa, anis-bedarra: anis, *Foeniculum vulgare*.

apio-bedarra: apio, *Apium graveolens*.

arabota, arabotia, ipurua: enebro, *Juniperus communis*.

aran, arana: endrino, arañón (fruto de **elorri baltza**; véase **elorri baltza**), *Prunus spinosa* L. (Hortik ote dator Arando?, 1564.ean aipatua; Arane, etxea, baina aranean dagoelako izan daiteke; Aranbalza, leku-izena, 1498an *egurtza* agirietan aipatzen da).

arantza: zarza, zarzamora, *Robus sp.* Bere frutuari **masusta** eta **masustra**.

arbi, arbixa: nabo, *Brassica napus*.

ardantza: vid, viñedo, *Vitis vinifera*. (Ardanza, etxeak, 1540).

aretx, aritz: roble, *Quercus robur*. (Arestxuloeta, etxea, 1498; Arizmendi, etxea, 1498; Arexita, 1514; Aristibalza, leku-izena, 1498; eta Asola?, 1409).

aretx-tantai, aritz-tantai: roble bravío, roble sin desmochar, *Quercus robur*.

arkazia: acacia, *Robina pseudoacacia*.

arta, arte: encina, *Quercus ilex*. (Artaetxebarria, deitura, 1632; Artegieta, etxea, 1857).

arta, artua: maíz, *Zea mays*. (Oroi aintzinagoko **artua**, gaztelerazko “mijo” zela, *Panicum miliaceum* eta Ameriketatik ekarri zen *Zea mays*-ek hartu zuela haren izena).

astalarrosa: rosa silvestre, *Rosa canina*.

astaperrejilla: perejil silvestre, *Petroselinum hortense*.

asun, asuna: ortiga, *Urtica dioica*.

azeri buztana, axeri buztana: cola de caballo, *Equisetum arvensis*.

aza, azia: berza, *Brassica oleracea*.

azalga, azalgia: acelga, *Beta vulgaris*.

azkar: arce, *Acer campestre*.

azpi: acerolillo, *Pyrus terminalis*. (Azpiri, deitura eta etxea, 1516).

aztigar: arce, *Acer campestre* L.

baba, babia: alubia, judía, *Phasolus vulgaris*.

baba-baltz: haba, *Vicia faba*.

babalora: amapola, *Papaver Rhoeas* L.

- basakrabeliña:** clavel silvestre, *Dianthus monspessulanus*.
- batan, batana:** menta, *Mentha rotundifolia* L. (Ohepetan ipinita arkakusuen kontra erabiltzen da).
- berakatz:** ajo, *Allium sativum*.
- berbenia:** verbena, *Berbenia officinalis*.
- berrua:** berro, *Nasturtium officinale*.
- bizixo bedarra:** heléboro verde, *Helleborus viridis*.
- borraja:** borraja, *Borago officinalis*.
- elorri baltza:** endrino (bere frutua **arana** da), *Prunus spinosa*.
- elorri-zuri, elorri zurixa:** espino albar, *Cralaegus monogyna*. (Bere frutuari **soldadu-makatza**).
- ereñotza:** laurel, *Laurus nobilis*.
- erromerua:** romero, *Rosmarinus officinalis*.
- erremolatxa:** remolacha, *Beta vulgaris*.
- esne-bedar:** lechetrezna, *Euphorbia helioscopia*.
- eukalitu, eukalitusa:** eucalipto, *Eucalyptus globulus*.
- euzki-lora:** carlina angélica, *Carlina acaulis*.
- ezkurra:** bellota; **ezkur arbola** ere esaten zaio, ematen duen frutuaren adierazgarri, nahiz eta frutua **arixala** bezala ere ezagutu den **aritzetikakoa** denez.
- ezpata bedar:** iris, lirio común, *Iris germanica*.
- frixkua (?)**: *Prunus armeniaca*? (Alberretxikua antzerakoa, baina zurigorrian eta hura baino urtsuagoa).
- garagarra:** cebada, *Hordeum vulgare*.
- gari, garixa:** trigo, *Trificum aestivum*.
- garo, garua:** helecho, *Pteridium aquilinum*. (Baserritarren artean bakarrik erabiltzen da, kaletarrentzat **ira** bai da).
- gaztaiña:** castaño, castaña, *Castanae sativa*.
- gisats:** retama, *Sarothamnus scoparius*. (Gisasola, etxea, 1498; Gisastu, etxea, 1759).
- gorosti:** acebo, *Ilex aquifolium*. (Gorostieta, etxeak, 1567, orain Gorosta direnak; Gorostiaga, etxea, XVI. m.).

idar: guisante, *Pisum sativum*.

indi gaztaiña, enano gaztaiña: castaño de Indias, *Aesculus hipporastanum*.

intxaurrea: nogal *Juglans regia*. (**Intxaurrea zurixa** eta **intxaurrea baltza** bereizten dira. Eskopeta kaxak egiteko **baltza** gehiago estimatzen da).

iñar, iñarra: brezo, *Erica Calluna vulgaris*, *Erica cinerea*, L., *Erica scoparia* L. (**kiñarra** bezala ere ezagutzen da; Iñarra, deitura 1498).

ipurua, ipurua: enebro, *Juniperus communis*. (Ipurua, etxea, 1857).

ira, iria: helecho, helecho común, *Pteridium aquilinum*. (Iraegi, lekuizena, 1339 eta etxea 1493; Irarragorri, etxea, 1600).

isats: retama, *Cytus scoparius* Link. (Isasi, etxea eta deitura, 1557; Itsaso edo Itxaso, 1857).

kañabera: caña, *Arundo donax*.

kardubera: cerraia, *Sonchus oleraceus*.

karraskilla: aladierno, *Rhamnus alaternus*.

keixa: cerezo, *Prunus avium*.

kiñar, kiñarra, iñar: brezo, *Erica Calluna vulgaris*, *Erica cinerea*, L. (**Iñar** eta **iñarra** bezala ere ezagutzen da. Iñarra, etxea eta deitura, 1540; Iñarre, etxea, 1857).

kipula: cebolla, *Allium cepa*.

koniflora: coliflor, *Brassica oleracea botrytis*.

krabeliña: clavel, *Dianthus caryophyllus*.

kukufra: digital, *Digitalis purpurea*.

kurutzeia, (sara(h)ats: adarrei esaten zaie, Erramu egunez soroetarako eta San Joan bisperan ateburuetarako kurutzak egiteko erabiltzen delako).

legar: galio, *Galium mollugo*. (Legarre, etxea, 1857).

leka: judía verde, vaina, *Phaseolus vulgaris*. (Lekamendi, etxea, 1857).

letxuga, letxugia: lechuga, *Lactuca sativa*.

liñu, liñua: lino, *Linum usitatissimum*.

lirixo: azucena blanca, *Lilium candidum*.

lixarra: fresno, *Fraxinus excelsior*. (**Lejarr**, Akondiako kantak aipatzen da, 1399).

- maats, maasti:** vid, *Vitis vinifera*. (Matxaria, etxeak, 1601).
- madari:** pera, *Pyrus communis*. (Madalzaga, leku-izena, 1339; orain Malzaga dena).
- maillubi, maillubixa:** fresa, *Fragaria vesca*.
- makal:** álamo negro, *Populus nigra*. (Makalarro, etxea, 1857).
- makats, makatz:** peruétano, pera silvestre, *Pyrus sylvatica*. (Makazaga, leku-izena, 1498).
- malba, malbia:** malva, *Malva sylvestris*.
- manzanilla, manzaliña:** manzanilla, *Chamaemelum nobile*.
- masusta, masustra:** mora, zarzamora, *Robus sp.*
- matxingarratza:** acedera, *Rumex acetosa*.
- melokotoia, melakatoia:** melocotón, *Prunus persica*.
- menta, menta-bedarra:** hierbabuena, *Mentha sylvestris L.*, *Mentha piperita*.
- miura, miuria:** muérdago, *Viscum album*.
- mispilla, mixpilla:** nispero, *Mespilus germanica*.
- odolgi, odolgixa (goroldi):** musgo, *Muscus*.
- okaran:** ciruelo, *Prunus domestica*.
- olua:** avena, *Avena sativa*.
- oreganua:** orégano, *Origanum vulgare*.
- ota, ote:** argoma, tojo, *Ulex europaeus*. (Otaola, etxea, 1584).
- pagatxa:** trébol encarnado, *Trifolium incarnatum*.
- pago, pagu:** haya, *Fagus sylvatica*. (Pagamendi eta Pagobieta, leku-izenak, 1493; Pagaegi, etxea, 1498; Pagoaga, etxea, 1595).
- pago-lixar:** haya bravía, sin desmochar, *Fagus sylvatica*.
- pasmu-bedar:** murajes, *Anagallis arvensis*.
- patata, patatia:** patata, *Solanum tuberosum*.
- perrejil, perrejilla:** perejil, *Petroselinum hortense*.
- pikua:** higuera, *Ficus carica*.
- pipar:** pimienta, *Capsicum sp.*
- pitxilora:** vellorita, margarita menor, *Bellis perennis*, *Bellis sylvestris*.

porru, porrua: puerro, *Allium porrum*.

sagar, sagarra: manzano, *Malus domestica*. (Sagartegieta, etxea, 1603; Sagarbieta, etxea, 1857).

sagar-makatza, sagar-makatsa: manzano silvestre, *Malus sylvestris*.

San Jose lora: florecilla de San José, vellorita, *Primula vulgaris*.

sarats: sauce, *Salix atrocinera*. (Sarasuegi, etxea, 1857).

sekula-bedarra, sekula-bedar: trébol, *Trifolium pratense*.

tilua: tilo, *Tilia platyphyllos*.

tomafia: tomate, *Solanum esculentum*.

txarri-bedar: sanícula, *Sanicula europae*.

txori-kardua, kardua: cardo, hierba cana, *Senecio vulgaris*.

txori-keixa: cerezo silvestre, *Prunus avium sylvestris*.

udalora: primula, vellorita, *Primula vulgaris*.

untz, untza: hiedra, *Hedera helix*. (Unzueta, torretxea, 1193; Untzeta, etxea, 1609).

urki, urkitz: abedul, *Betula alba*, *Betula verrucosa Ehrh.*, (Urkidi, etxeak, 1494; Urkizu, etxea, 1557; eta behar bada Urko, mendiaren izena, 1498).

urritz, urritx: avellano, *Corylus avellana*. (Urrutxain, etxea, 1857).

uztapikua: breva, higo breva, *Ficus carical*.

zan-bedar: llantén, *Plantano lanceolata*.

zumar: olmo, *Ulmus campestris*, *Ulmus procera*. (Zumaran, etxea, 1498).

zume, zumia: mimbre, *Salix viminalis*, *Salix rubens*. (Sumendiaga, etxea, 1596).

II. T. ETXEBARRIAREN LEXICON LANARI GEHIGARRIAK

Botanika lexikoaren ondotik, hara hemen gure herrian aspaldi ekin nion hitz bilketen ondorioz Toribio Etxebarriak "Lexicón del euskera dialectal de Eibar" (**Euskera**, X-XI, 1965-66, 1-659 orr.) (4) deritzan lanean

(4) Bigarren argitarapena Euskaltzaindiak, Bilbon, 1986. urtean.

jaso gabe utzi zituenen zerrenda. Honetariko batzuk, han emandako esan nahieran gainera beste erako zentzua dutenak ere tartean sartuz.

Hemengo hitz hauetan azentua ere kontutan hartu dut, guretzat gauza bera ez denez, adibidez: **abixária**, *impulso*, eta **abixaria**, oilloei arraultzagintzarako jartzen zaiena; **miña** eta **miña** (bi *i* edo *i* luzearekin); **píntxia** eta **pintxía**. Baina, horrez gainera, bereizketarik gabekoetan ere, ematen diogun azentua jarri nahi izan dut, den bezala baliatzeko.

Bestalde, laurehun eta berrogeitamar hitzetik gorako zerrenda honetan, XVIII. mendean agertu zuten Ordenantza haietatik ere zenbait hautatu ditut. Orduko eibartarrek, herikideek hobeto uler zezaten, bertako hizkerara itzuli bait zuten Pedro Cano Mucientes erregeren korrejidoreak Gipuzkoan hauteskundeetarako jarri zituen Ordenantzak (P. Cano Mucientes zeritzan hau 1754.etik 1758.era bitartean izan zen Gipuzkoan korrejidore).

Ordenantza horien eskuizkribua Toribio Etxebarriak eman zion Gregorio Mujikari 1908. urtean eta honek handik bi urtetara argitaratu zuen *Monografía Histórica de la Villa de Eibar* (1910) liburuan eraskin gisa (ikus, 464-467. orr.).

Gaur egun era arruntean ezagutzen ez diren zenbait hitz agertzen zaizkigu beste zerbaiti erantsiak; zalantzarik gabe, gure hirian noizbait erabiliak izan diren oroitagiri bitxiak ditugu. Adibidez, **uzta** ez dugu erabiltzen, baina **uzta-pikua** hor dugu lehen uztarekin batean etortzen den pikua.

Gauza bera gertatzen zaigu **ortze** hitzarekin, soilik ezagutu ez, baina zerua garbi dagoenean **osgarbi** esan ohi dugu, eta gorri denean **osgorri**; horren arabera, **ostondua**, *horizonte*. **Antzi** edo **aintzi** ere ez dugu soilik erabiliko, baina bai ordea beste zerbaiti loturik lehena edo aurrekoa adiarazteko: **antzina**, **aintzizika** edo **antxitxika**, erainegun **-antzitik** edo arañegun **-antxitik** eta abar.

Beste batzutan, antzez hurbiltzen zaionak adierazten digu: **Sukarra**, adibidez, **kalentura** bezala ezagutzen da, baina bada aditzera emateko beste era bitxi bat, **ozberua**; zeren burua bero eta oinak hotz edukitzeaz laster esan ohi dugu **ozberuak** nago eta edozeinek esango: “ozberua txarra da”.

Bertako argotetan sartzen garelarik etenik gabeko hiztegi bereziarekin aurki gitezke, maiz adineko eibartarrek ez bestek ulertzeko erara. **Granujakeria** okerkeria den Eibarren, **granujia** mutiko maitagarria da, **txakurzurtzillo** mutil lotsagabea eta **jantxakurra** besteen kontura bizi den pertsona.

Egia esan, Eibarren, txakurrak zerbaitetarako behar dute izan eta **kaza-txakurrak** (ihiza-txakurrak) mota askotarikoak dira: **eper-txakur** (poin-

ter eta antzekoak), **erbi-txakur** (sabueso lebrero horietakoa), **txinbo-txakurra** (cocker), **arratoi-txakurra** arratoi eta saguak harrapatzeko, **ardi-txakurra** artzaiak artaldea zaintzen laguntzeko, **ate-txakurra**, izenak berak dion bezala, atezaintzarako, antzinakoen *cancerbero*, gaur egun foballista atezainari ere hala deritzaie, eta besteak beste **jantxakurrak**, beste ezertarako baliorik ez eta etxeetan laguntzarako dituztenak; hau idazten duenak ere badu halako bat kaletik jasoa.

Baina, hortik ohar hizkuntzaren erabileraz bizitzak berez sortzen dituen erak amaigabeak direla. Eder denez hizkuntza bizia plazan Etxeparek opa zue eran.

Gainerako luzapenik gabe, hara hemen hitzez hitz nere bilduma tipia Toribio Etxebarriaren *Lexicón* haren osagarri:

abadekume, abadeseme: clérigo. (XVIII. mendearen erdialdera Eibarren elezinuetarako agertu ziren Ordenanzetan honako hau dator: “egon della Conttuban Justticia Errejimenthu gustticha esteilla nombrau escribazuatt, *habaderen semeric*”. G. Múgica, *Monografía Histórica de la villa de Eibar*, 466. orr.).

abixaría: impulso.

abixaria: huevo de reclamo para incitar a las gallinas para la puesta. Estos huevos de imitación eran de cerámica con barnizado blanco.

agura-mâspasia: viejezuelo enjuto.

aguro: pronto, presto.

aintxiña: antiguamente, antaño. (T. Etxebarriak dakarren **antxiña**-z gainera).

aintxitik: por delante. **Eraineun aintxitik:** anteanteayer.

aittiaren-batian: en un santiamén.

aixa: papilla.

aixa emon: ponerle afanoso, contentarle o animarle para la competición.

aizegórria: cierzo, viento frío y penetrante.

aizépe: sotavento, socaire.

akats: error // Mella.

aldez-áurretik: de antemano.

aldez-séguru: premeditado, prevenido. (Recogido en el Barrio de Aguinaga, de Eibar).

alkarrekingo: en unión, conjuntamente.

alkotza, aotza: cascabillo.

alperra: antiguo taladro de sobremesa // Vago // Rodillo de piedra para apisonar, que se usa en agricultura.

amabí-amabietan: a las doce en punto. **Amabi-amabiak:** doce en punto.

ámaiñ: dar suelta, dejar libre, desenfreno. De ahí el topónimo Amaña en el lugar de la compuerta para el vaciado de la acequia para su limpieza.

ámaiñ emonda: a su aire, al azar, desenfrenadamente, libre albedrío.

amama: abuela // También se emplea como interjección con equivalencia a Jauja!

amet, ametza: quejigo, Quercus pyrenaica. (T. Etxebarriak “arce” zela uste zuen baina “arce” **aztigarra** da. Amezabalegi baserria 1498. urtean aipatzen da, egurtzen agirian).

amia: en animales dueño o dueña de la covada o de rebaño // Por ext. mandamás, tirano, entre personas.

anka: (sinon. de **iges, ospa**), huir, evadir, fugarse.

ants: mal olor, hedor. (T. Etxebarriak **antz dakar**).

antz: semejanza, parecido.

aozabal: exagerado, bocazas.

apurra: migaja // Residuo.

aurka: contra, en contra, enfrentamiento.

aratan, aratian: nadar de espaldas.

ardaundeixa: taberna, vinatería.

ari-arixan: al filo de, a punto de, justamente.

arixa: hilo // Rosca, filete de rosca.

arjua: agusanado, fruto atacado por el gusano.

arkua: arco, guardamontes de arma.

armagiña: armero, fabricante de armas.

arraitxiko: a horcajadas.

árra: palmo.

árraka: haurren jolasa, **árra** neurritzak dela; gehienetan intxaurrekin egi-ten da.

arramuzka: rezongando, refunfuñando.

arrara (zirrara): estremecimiento.

arrausin: bostezo.

arrio: rehuir el desafío, negarse a afrontar una competición.

artalastua: caña de maíz.

artiak artu eziñik: inconteniblemente. (Usase, bien para gozo, dolor o pena).

artomailastoa: caña de maíz, en Eibar, según Carmelo Echeagaray, en conferencia pronunciada en San Sebastián, año 1906, con ocasión de las Fiestas Euskaras. Trabajo reproducido en “La Gran Enciclopedia Vasca”, Tomo I, fascículos 1-2, pág. 21. Bilbao, 1966.

asta-nafarrixa: viruela loca, varicela.

astapotrua: pelota hecha con intestinos de animal y que sirve también de núcleo a las pelotas normales para jugar a mano.

ástegun buru zurixa: día laboral, día ordinario de trabajo.

ástoratu, ástorau: aturdir, desquiciar.

astrapala: alboroto.

atala: pedazo, gajo // También se emplea, burlonamente, para decir borrachera.

atso-máspasia: viejezuela enjuta.

atsua: vieja, anciana // También se dice de las mujeres casadas que no han podido tener hijos.

aurtena: centro, entre. (En barrios o grupos de casas situadas en declive de la montaña **aurtena** se designa para la del centro. Ejemplo son caseríos Arando: así de arriba a abajo están situados Arando-guena, Arando-aurtena y Arando-barrena).

autúa: noticia, asunto, suceso. (XVIII. m. Ordenanzetan **auttuba** agertzen da. G. Múgica, *Monografía*, 466. orr.).

autubatzalle: chismoso(a), cotilla.

autsontzia: cenicero, recipiente para cenizas.

axaxa: azucar.

azkabixa: enfermedad del cabello que provoca la calvicie parcial o total.

azkapela: dedil, funda protectora para el dedo cuando se tiene alguna herida.

- babalora:** amapola // También se dice de la persona de poco garbo.
- bagoa:** la echa.
- bago egin:** poner la echa al juego. (Azkuek Eibarren jasoa, bere Hiztegiari eskuz egin zizkion oharretan agertzen denez).
- baldrás:** destartado, descuidado en el vestir. (T. Etxebarriak, **baldresa** dakar).
- barautsa:** broca. (T. Etxebarriak, **barautza** dakar).
- barra-barra:** (onomatopéyico) abundante, derroche.
- barrena:** parte baja // Taller de barrenador.
- bart:** anoche; noche pasada inmediata.
- basamutilla:** montaraz.
- basati:** salvaje, silvestre.
- baskulagña:** basculero. Especialidad profesional armera en las escopetas, que consiste en acoplar el mecanismo de la llave al cañón, con su correspondiente ajuste.
- bégitxuka** (sinón. **Itxuka**): juego de: La gallina ciega.
- bensinia:** gasolina. (Haurtzaroan hala ikasi genuen baina gerra aurretxoan hasi ginen **gasolina** erabiltzen).
- berba:** (hitz), palabra.
- berbaduna:** cumplidor, el que sabe mantener la promesa o la palabra dada.
- berbakizun:** habladuría, motivo de habladuría.
- berbarua:** rumor de voces.
- berbatsua:** hablador, parlanchín.
- berekautan:** consigo mismo, soliloquio, persona que se imbuje en sus pensamientos. (Equivale a **berekikoetan**).
- berritxu:** parlanchín(a).
- besamotza:** manco.
- betagaña:** ceja, sobreceja. (**Betula** se utiliza indistintamente para ceja y pestaña).
- birikatxa:** uñero, inflamación junto a la uña.
- birriña:** harina, harina fina. (No es **salvado** como trae T. Etxebarria. El salvado es **zaixa**).

bizimodukua (bizimoduko andria): puta, ramera. También se las conoce por **emagaldua**.

bizixana, bizixarena: cáncer.

brist: relampagueo; **brist-brist:** brillantemente, reluciente; **bristada:** destello, resplandor, fulgor; **bristadatsua:** resplandeciente.

bular bateko anaiak: hermanos de leche.

burugiña: calculador, discurridor.

buruzbera: cabeza abajo // En natación, zambullirse de cabeza.

desterarri: (maizago laburpenez, **destarri**) piedra de afilar movida a pedal.

desterrau: desterrar (**desterrebac XVIII. mendeko Ordenanzetan dator.** Ikus G. Mugica, *Monografía*, 465. orr.).

dzanga-dzanga: (onomatopéyico), simula al caminar a grandes zancadas.

égoia: viento sur. Sinón. de **Egoaizia**.

egosgógorra: difícil de cocer, terco, tozudo.

egóskorra: tozudo.

egurtza: lugar de saca de leña. Ejido. (Las **egurzas** se documentan en 1494 en la *Monografía Histórica de la villa de Eibar*, de Gregorio de Múgica, p. 11).

elízkoia: devoto.

éraiñegun: anteayer. (T. Etxebarriak **erañegun**).

éraiñeun-aintxitik: trasanteayer, anteanteayer; el día anterior a antes de ayer.

erásan: esguince, distensión, distensión muscular.

eritxi: opinión, criterio.

eritxi: estimar, juzgar. (Con sus variantes verbales **deritxa, zeritxa**, etc.).

eritxira, eretxira: a tientas, **eritxira ibili:** andar a tientas.

erdi-lo: dormitando.

erdu (zatoz, etorri zaite): ven, vente; **zatóze.** (Bergara aldean eta Gipuzkoa aldean **zatozte den bezala**), venid.

ergela: persona no grata, falto de inteligencia.

erpin: cúspide, cima o cumbre puntiaguda.

errefreskua: refrigerio, ágape, banquete.

errenkóladan: en fila, correlativamente, uno tras otro.

errenkóladia: fila, en correlativa.

erriko errentak: renta municipal. (**errico errentac** XVIII. m. Ordenanzetan dator. G. Múgica, *Monografía*, 465. orr.).

erriko-seme: nativo, ciudadano; se emplea también para expresar casticismo.

erroskilla: rosquilla.

esamesak: habladurías.

esangaiztoko: desobediente.

eskaldarrua: bermejuela mayor, variante mayor de la bermejuela, eskallu haundia.

eskeria: maleza; zarzas entrecruzadas de arriba abajo.

eskillarape: hueco bajo la escalera.

eskolatua: instruido. (Sinón. de **ikasia**).

espiritua: alcohol. (aurtzaroan horrela ikasi genuen eta gure zaharrek besterik ez zuten erabili).

este-sobrekuia: apendicitis.

este-sobria: apéndice.

etsipena: desaucio, desesperanza, desaucio médico.

etsipena emon: desauciar.

etsipendua: desauciado, desauciado por el médico, desesperanzado.

etxidamu: el día siguiente de pasado mañana.

eulimando: tábano.

euskarri: soporte, sostén, apoyo.

ezetsi: negar, negativa.

ezkutuka: a escondites (juego infantil).

ezti-miña: ansia de dulzura, dulzura.

eztimiñetan: dulcemente, gozoso.

firin da faran (firin eta faran): gaudular, andar sin ton ni son.

fixt: (onomatopéyico), instantáneamente, huir instantáneamente, de súbito.

frailekatillua: tazón, tazón mayor que lo normal.

frankezia: sinceridad, generosidad.

gaberdi-zârrak: altas horas de la noche.

galikarak: enfermedad venérea; generalmente chancro blando. (Debe provenir del mal galaico).

garagarra: cebada. (T. Etxebarriak, **garragarra** dakar).

garagarrak-irabazten: revolcarse los asnos.

garausartzalle: desporador. (Antiguamente se llamaba así al operario que en las fundiciones se dedicaba a llenar de metal las porosidades de las piezas fundidas).

garun: seso.

garuntegia: cavidad cerebral.

gauzak: menstruación (en argot).

gibelekua: hepatitis // Ictericia.

gixarra: fibra.

goitibera: juguete de niños que consiste en un carrito triangular de tres ruedas de poco diámetro en cada uno de sus ángulos, hecho de tablas, de forma que disponga de dos ruedas traseras y una delantera con eje articulado que se maneja con los pies y sirve para descender o patinar cuesta abajo.

gorantziak: recuerdos.

gorrizka, gorrixkara: rojizo.

gose-pasaua: hambre pasada, debilitamiento o desgana por no alimentarse a tiempo. (Eibarren esan ohi da: “**Gose-pasaua** txarra da”, eta Plaentzian, zentzuna aldatuz: “**Gose-pasaua** ona da, jan da gero”).

gozagaitza: incompaciente, incomformable.

guen, guena: límite o extremo superior en territorio. (Por ejemplo, es de uso corriente en referencias como: sologuena, bide-guena, etc., y asimismo para describir la situación en grupo de casas con equivalencia a **goikoa**, en Eibar **goikua**).

gurena, guena: parte superior, límite superior. Por ext., nata de la leche.

gurixa: rollizo, tierno // Gelatina, gelatinoso.

gurrutxel: en 1790, se llamaba así a las mantas o tapetes de las sepulturas de la iglesia, según G. de Múgica, *Monografía histórica de la villa de Eibar*, p. 122.

gutxi: poco.

gutxietsi: menosprecio, pequeñez, de escasa consideración, falta de consideración. **Norpere buruari gutxietsirik;** acomplejado, complejo de inferioridad.

ibarra: ribera, valle. (Agiri zaharretan eta leku izenetan agertzen da. "Ibarra de suso" 1493. urtean, G. Mujika, *Monografía*, 190. orr. Eta gure mende honetan leku izenak: Ibarbea, Ibarrekurutz, Ibargain).

idakorri: leer. (**Idacortten**, XVIII. mendeko Ordenanzetan dator. Ikus G. Mujikaren, *Monografía*, 464. orr.).

ifarra: Norte.

ifar-aizia: viento norte, cierzo.

ifiñi (ipiñi): poner. (**ifinita**, puesto-ren balioz dator XVIII. m. Ordenanzetan, ikus G. Mujika, *Monografía*, 466. orr. Gaur oraindik maiz entzuten zaie Eibarko baserritarrei **ifiñi**, **fan** edo **foan** eta antzerakoan, **j**-ren ordeaz **f** erabiliz).

ijo, irauldu: moler.

ixo: (en mecánica) pasar de rosca, deshacer la rosca por el uso.

illargixa, iretargixa: luna.

illetajotzaille: plañidero(a).

illetia jo: plañir.

infrañua: infierno. (T. Etxebarriak, **infarnua** dakar).

infrañuko-Patxi: diablo, demonio.

ingirau: proveer, proporcionar, arreglárselas.

ingurau, inkirau: agenciar, proporcionarse, proveer. Sinón. de **ingirau**.

inkillau: plagar.

inkillaut: plagado.

intxurra: (**zintzurra** en otras partes), nuez, o nuez de Adán: prominencia que forma el cartilago tiroides en la parte anterior del cuello del varón adulto.

ipurdiloka, ipúrloka: inestable, en personas; culo de mal asiento.

irabolika: cemento hidráulico. (**Hidraulikatik**, seguru asko).

irago: pasar, transcurrir. (**yrago**, XVIII. m. Ordenanzetan dator. Ikus G. Mujika, *Monografía*, 465. orr.).

irao: recalentar.

iraotu: recalentarse; revenido en el tratamiento térmico.

irauli: volcar.

iritxi: alcanzar, conseguir.

irrist: resbalar, deslizar. (T. Etxebarriak, **irrizt** dakar).

irristada: resbalón.

irristaka: resbalándose, deslizándose.

irristakor: resbaladizo, propenso a resbalar o deslizar.

irutzur: rincón, ángulo // Traicionar.

istrumuziñua: extremaunción.

itxuka (sinónimo, **bégitxuka**): juego de: La gallina ciega.

izatez: ser natural de...

izipua: brocha de albañilería.

izpi: fibra diminuta de hebra, hebra, diminuto.

jai: fiesta. (Hala dator XVIII. m. Ordenanzetan ere).

jantxakur: perro de lujo. Por extensión, persona parásita que gusta vivir por cuenta ajena.

jarixua: pérdida, derrame; pequeña fuga de agua; normalmente y por asociación se emplea para otras designaciones que guarden similitud con el derramar.

jatsi: ordeñar.

jikara: jícara, tacita.

jiraka: girando.

jirau: girar, dar vuelta // Procurar, conseguir.

juridik: parecerse. (En tratamiento de tú, en masculino; equivale a **dirudi** del tratamiento de usted).

jurudiñ: parecerse. (En tratamiento de tú, en femenino).

jitxa: facha, aspecto. (Generalmente por mal aspecto en lo físico o en el gesto).

kafe txanua: colador de café.

kafesnia: café con leche.

kakatsua: cagón // Fastidioso.

kakutsa: mierda pura.

kalder, kalderra: tacaño.

kalderkeria: tacañería.

kalekume (kaleko ume): criatura urbana, urbano. Ciudadano de una población, en oposición al hombre rural.

-kara: (sufijo que designa tonalidad de color) ejem. **gorrizkara:** rojizo, **orizkara:** amarillento, **zurizkara:** blanquecino, etc.

katarra: gato macho, en argot burlesco se dice de las personas donjuanescas.

katxo: pelotari ezkertia, gure gurasoek erabiltzen zutenaz.

kesokemaua: flan.

kili-mala (makalik): indispuesto, débil.

koipe-gaza: delicado(a), cursi.

koipe-gazazko: persona delicada.

koipe-lustre: pringoso.

koipezto: pringoso.

koittaua, kotxaua: desgraciada. Gizonak, **gizajuak** eta andrak **koittauak**.

kokaldia: tortículis.

kopaua: bocado.

korapiña: nudo pequeño, nudo sencillo.

kortejau: cortejar a las damas o señoritas.

koska: mella // Obstáculo.

koskondu: desarrollar.

kotoia: algodón.

labakadia: horno repleto.

labakua: hornada.

láfiau (mozkortu, en argot local): emborracharse. (T. Etxebarriak, **lapiau dakar**).

lamaikua, lameikua: se decía por una moneda de valor inferior a la de cinco céntimos. (Viene de **Lau maravedikua**, de cuatro maravedíes).

lanparra, euri-lanparra: llovizna fina y pertinaz.

laupardia: borrachera.

legez, letz: modo adv. como, según. Sinón. de bezela. (En las Ordenanzas de mediados del siglo XVIII aparece **legues**. Véase G. de Múgica, *Monografía Hist. de la villa de Eibar*, p. 467).

leixua, leiua: saetera.

leka: vaina, alubia verde // Por extensión, la vaina de legumbres.

lekutan: lejos. (Exp. **sekulako lekutan!**, ¡qué lejos!).

lerdena: esbelto, espigado.

liz-papel: papel de lija.

lokamusa: dormir con intermitencias, dormitar, sueño corto.

lokartu: loak hartu, dormirse.

lokiak: sienes. (Este vocablo lo utilizaba mi madre, natural de Abadiano, de padres ochandianenses. Pero no se conoce en Eibar, ni figura en el diccionario de Azkue).

lokuluxka: sueño breve y ligero.

lordin: suciedad, mancha.

lotsor, lotsorra: vergonzoso, tímido.

lupua: salamandra.

makalik: convaleciente.

manga: manga.

mangutsik: en mangas de camisa.

mañoso, mañosua: lloricón // Habilidoso.

marikita: afeminado, maricón.

mari-mutil: mari-macho, hombruna.

marsala: árbol hermoso y pujante.

marrajo: astuto, cauto, taimado, de mala intención.

marrajukeria: jugar suciamente en algún asunto.

maaspasa: uva pasa.

maskillu: moco seco.

maspildu: machacar, abollar.

maspildua: abollado, abolladura.

matraillako bat: una bofetada. Francisco Arratek dakar, XIX. mendeko sermoian eibartarrez, eta gaur ere hala erabiltzen da.

- maxkal:** endeble, flojo.
- me, me-artu:** dependencia, dominar a uno por su debilidad de carácter; como vulgarmente se dice: "tomar a uno por primo".
- mela-mela:** mojadura, caladura de agua.
- memel:** persona enclenque, de poco fundamento.
- memelo:** insustancial, persona insustancial.
- mendebala:** viento lluvioso procedente del Noroeste.
- mendebaldea:** Oeste.
- miestu:** entresacar, diseminar.
- miets:** disperso, poco espeso. Bosque con arbolado diseminado. En sentido figurado se aplica a otras cosas.
- mika:** melindre, llorón.
- mingel:** quejoso.
- mingelin:** quejoso(a).
- miña:** dolor, sentir.
- miña, (miiña):** lengua. (Hauek, T. Etxebarriak ez ditu bereizten).
- moldekatxa:** torpón.
- momoliña:** chica insustancial.
- momorrua:** el coco (en el vocabulario infantil).
- móskarana:** cáscara verde que envuelve la nuez. (T. Etxebarria recoge **moskorona**).
- moskorra:** petardo.
- móste:** interj. **Zer móste!; Zer óste eta zer móste!**
- motrollua:** montón informe.
- murmurrekua, mormorrekua:** entierro de pobre, de cuya conducción y funeral nadie responde económicamente.
- musin, musin-egin:** rehusar, rechazar.
- mutxikiña:** corazón de las frutas de pulpa carnosa, núcleo donde albergan las semillas de las frutas de pulpa carnosa.
- nágixak-botatzen:** desperezándose.
- negarra:** además de lloro o llanto, sirve de forma castiza para expresar lamento. De manera similar se usa **illetia jo:** plañir.

- nerekautan:** conmigo mismo, en soliloquio. (Equivalente a **nerekikoetan**).
- neska puxiga, neska arrua:** chica orgullosa.
- nortasuna:** personalidad, casticismo.
- obeidu:** obedecer, rendir, cuando se trata de desafío. (**Obeidu arte**, hasta rendirse solían ser las peleas callejeras de nuestra infancia).
- ogibitxartekua:** bocadillo.
- okaran-pasa:** ciruela pasa.
- ondarrixa:** canto rodado de los ríos, cantos rodados diminutos.
- onutsa:** bonachón(a); persona extremadamente buena. (**Onutsa, kakutsa:** de tan bueno, tonto).
- oraiñengo:** inmediato, lo más próximo en tiempo. (XVIII. m. Ordenanzen-tan **orainengo auttuba** dator. Ikus G. Mujika, *Monografía*, 467. orr.).
- oraixa, oreixa:** canalón de desagüe en las cornisas de los tejados. Al articular **oraixia, oreixia**.
- orbel:** hojarasca, hojas caídas. (En oposición a **osto** que se mantiene en la copa del árbol).
- ordubi-ordubiak:** las dos en punto.
- ordubi-ordubietan:** a las dos en punto.
- ore:** masa de harina. (Con el artículo, toma la forma **oria**, que figura en T. Etxebarria).
- ore:** nubes en forma de cúmulos. (Con el artículo, **oria**).
- orekan:** en equilibrio, en suspensión. Se aplica generalmente a las aves que se quedan extasiadas en el aire aleteando contra el viento pero sin cambiar su posición.
- ore-maixa:** artesa, mesa para la preparación de la masa para hacer pan.
- orizkara:** amarillento.
- orremen:** acá y acullá, de con en con.
- órrenbaten:** aproximadamente.
- osgarbi:** cielo despejado, cielo estrellado.
- osgorri:** cielo rojizo, firmamento rojo.
- ospa:** escapar, huir (sinón. de **iges**).
- óstera:** viaje o recorrido de ida y vuelta, con acento en la primera vocal.

osteruntzian, ostiantzian: en lo demás, por lo demás (XVIII. m. Ordenanzetan dator **osteruncian**. Ikus G. Mujika, *Monografía*, 466. orr.).

ostondua: horizonte.

ostro, ostrua: hoja de planta.

ostiango, ostiantzeko: el resto, de lo otro(a), por o para añadidura.

ots egin: convocar (**oz eguiten**, XVIII. mendeko Ordenanzetan. Ikus G. Mujika, *Monografía*, 465. orr.).

otxindu: hacer fortuna.

otxo-kuarto!: ¡qué caray! (Interj. **Zer móste ta ze otxo-kuarto!**).

ozbero: escalofrío ("**Bai jauna, oz-berua txarra da**").

ozbera: friolero(a).

panpan: fanfarronada, afán, afanarse, exceso de confianza.

panparrería: fanfarrería.

pardúa: moteado.

parra-parra: deslizar patinando. **Parraparrían:** el juego de deslizar patinando. Generalmente juego de chiquillos que preparaban una pendiente arcillosa con agua (en ocasiones orina) para patinar más rápidamente en el tramo preparado al efecto.

pasmo-bedar: murajes (*Anagallis arvensis*).

pella: leche frita.

peora: portal. Entre personas mayores **pegora**. (Véase en T. Etxebarria).

perkatxa: pizpireta, precoz, avisado.

pikia: pez de artesano // Cuesta, pendiente muy inclinada.

pikupasa: higo seco.

pinporta: forúnculo, yema, botón; brote del capullo de la flor.

pintxía: peripuesto.

píntxia: aprendiz de taller.

pipa-zotza: planta trepadora, enredadera. Tronco de la planta conocida por **aixena**; pámpano que crece en forma de espiral entre maleza o en el bosque, de médula muy porosa; en nuestra niñez lo empleábamos para fumar.

pipitxia, pepitxia: punto de inicio del forúnculo para el brote del capullo.

pitxadaia, pitxaria: dejada en el juego de la pelota. (Ikus T. Etxebarria, *Lexicón*).

pitxadaka, pitxaraka: jugar a la pelota a base de ardides.

porrot: quebrar.

pot: fallar, fallar por extenuación. (Su variante “poto”, se emplea entre bersolaris).

potruak: testículos.

potrosua: cojonudo.

potrozorri: ladilla.

potxo, potxo egin: meter en el hoyo.

potxor: vulva de hembra; vulgarmente, coño.

potxoliña: coño en sentido afectuoso.

potxorroskillak: los de mi edad nunca comprendimos su significado exacto, pero utilizábamos para dar la negativa a un ofrecimiento inaceptable, utilizando como interjección: potxorroskillak! Para nosotros, el secreto residía en que nunca podíamos dirigir tal interj. a una persona adulta.

poz-pozik: alegremente.

rausk! (onomatopéyico): exclamación de esfuerzo o vuelco.

sapai: desván.

sardaundeixa: sidrería.

sasiletraua: sabiendo.

sasimedikua: curandero.

semaikua, xemaikua, semeikua: moneda de cinco céntimos. (Aunque se haya usado para la moneda de cinco céntimos, su significado es **sei maravedikua**, de seis maravedies).

semei: cinco céntimos.

senalle, señale: señal.

senean: juiciosamente, en su sano juicio.

seneratu: volver a sus cabales.

senetik atara: desconcertar, sacar de quicio.

senetik urten: desconcertar, salir de quicio.

- seta:** terquedad.
- setati:** terco.
- setatsu:** tercamente, terco, vengativo.
- sits-bola, sísbola:** bola de alcanfor.
- sorgor:** extasiado.
- suarua:** seguro de incendios, hermandad contra incendios.
- sutautsa:** ceniza.
- tajura:** aspecto.
- taketa:** estaca.
- takian-potian:** frecuentemente, muy amenudo, una y otra vez. (T. Etxebarriak **takian da potian** dakar).
- tarratada** (onomatopéyico): rotura por desgarró, de tejido o papel.
- tartakin:** inestable, impaciente, saltarín. (T. Etxebarriak **tartakariña** dakar).
- tati:** toma y daca.
- tenean:** erguido en tensión, estable.
- tengontenian:** en equilibrio, inestable, inseguro.
- tentel:** tonto, fatuo.
- tertzio:** término medio, cantidad regular // Mucho en sentido irónico.
- tiki-miki:** tema, temoso, impertinencia.
- tipi-tapa** (onomatopéyico): simula el caminar. (Cuando se trata de un párvulo se dice **taka-taka**).
- tira-bira:** tira y afloja, regateo.
- titillak:** mollejas de cordero.
- títirrixa:** impaciente, persona que pronto se pone nerviosa por impaciencia.
- tolostura:** pliegue.
- toriatzaillia:** tentador, incordiador.
- tórtolosean:** el juego de las tabas.
- trallan, besoa trallan:** en cabestrillo.
- trokatu:** dislocamiento del tobillo.

- trokotxa:** persona de dedos morros o cortos, en pies y manos, que dificultan la articulación en dichos miembros. (T. Etxebarria lo cita como sobrenombre en Eibar; pero dicho sobrenombre se atribuye a personas con ese defecto físico genérico).
- trónpetan:** juego a la trompa en los niños.
- trosko:** trozo de materia en bruto. (Generalmente se emplea en la industria paralelamente a **totxo**, como menos labrada).
- truxalak:** llover torrencialmente.
- tutik:** nada (tutik ez jakitzea, no saber nada de nada).
- tutik pe ez:** ni mu.
- txandan-txandan:** por turno correspondiente, alternativamente. (“Txandan-txandan morokilla”).
- txanka makiak, txankame:** patidelgado(a), patilargo(a).
- txánua:** gorro cónico, capucha // Colador de café.
- txaplatia:** trozo, retal // También se dice de las mujeres que hablan sin fundamento.
- txartela:** cédula, tarjeta. (Véase en G. de Múgica, *Monografía Hist. de la villa de Eibar*, en documentos de 1647, cita **charteles** en pág. 199).
- txepel:** pusilánime, cobarde.
- txínga:** argolla.
- txintorrrak:** chicharrones, frituras de manteca de cerdo. Residuo que queda al derretirse la manteca de cerdo.
- txirrinbolia, txirindolia:** aro, aro del juego infantil.
- txispagiñak:** llaveros. (Profesión armera de llavero).
- txistada:** chistar.
- txitxaka:** juego infantil que consiste en cazar a la pata coja, dar caza a la pata coja.
- txitxalapur:** ave de rapiña.
- txolota:** acetre, vaso con asa.
- txorokil:** carozo, garojo, zuro. Mazorca de maíz desgranada.
- txuliau:** chulear.
- txulua:** chulo.

txutxumutxu, txutxumutxuka: cuchicheo, de cuchicheo.

udaguena: otoño. (En zona rural de Eibar se utiliza tanto o más que **udazkena**).

ugar: óxido, herrumbre. (Gipuzkoan **erdoia**).

ujentu, ujento: ungüento.

ukat: rendirse, abandono por agotamiento. También se emplea como sinónimo de **pot egin**.

ulua, olua: avena. (T. Etxebarriak jartzen duena, **úlua**, quejido, lamento, lehen **u** azentuz da).

ume-zorri: rapaz, crío desvergonzado.

urpartíño: distribuidor de aguas. (Es un conducto de aguas, pequeño contenedor labrado en piedra y con diversas salidas para repartir las aguas a partes iguales. Existe aún uno en la loma de Santa Cruz, cerca de las ya abandonadas escuelas de barriada, que las aguas procedentes de un manantial a más de un kilómetro de distancia y las distribuye a los caseríos de Mandiola, Azpiri, Sagarbieta, Azaldegui y Aguerre, en el término de Eibar).

ur bitsetan (*con sus variantes, Ur gañeko bitsetan y Ur gañekuetan*): pleno de satisfacción, gozo supremo, de gozo; cuando se está contento en su propio ambiente.

urduri: inquieto, nervioso.

urrumada: gruñido.

urtetsua: añejo.

urteurrena: aniversario.

usa: noval. (Recoge Gregorio de Múgica en la *Monografía Hist. de la villa de Eibar*, p. 10, sobre montes comunales, J. A. Moguel en *Peru Abarca*, Ed. 1881, p. 110, "usa edo erri-basuac". Véase "Usa leku-izena eta bere esan nahia", **Euskera**, XIX, 1974, pp. 267-275).

uskilandria: persona rara.

usmau, susmatu: observar, percibir el rastro.

ustarrilla: enero. (XVIII. m. Ordenanzetan dator: "Provinciaco erri gust-tietacuac bialdu daichela urtebarrico ylian, ceina baita **ustarrillian**". G. Mujika, *Monografía*, 466. orr.).

xaxara: poco fundamento, poco fuste // Ocio.

xemaikua: (Vid. **semaikua**).

zaixa: salvado.

zamaua: paño de hilo, paño de cocina.

zankapia: corva.

zan-okerra: trazador acodado que se utiliza en el damasquinado.

zantiratu: distensión de un tendón.

zan-zuzena: trazador en el trabajo del damasquinado.

zapparrotia: chaparro, regordete.

zaplatakua: bofetada.

zapladia: paliza, azotaina.

zapluiua: paliza.

zarrastrajo, zarrastraju: harapiento.

zazkar (zakar): bruto.

zertarakua: hábil, mañoso, persona muy dispuesta: “Zertarako gizona da”.

zetakia: mancha o suciedad con costra.

zeetu, zêtu: desmenuzar.

zelbia: impertinente, insidioso.

zelibekeria: impertinencia, insidiosidad.

ziarro mutxikiña: colilla.

zibiri-zaubia: columpio, movimiento pendular.

ziburua: columpio.

zirikillote: dulce preparado con calabaza cocida y azúcar. Mermelada de calabaza que se conoce por “cabello de ángel”.

zirimildu: revolver, mezclar.

zirimillua: revuelto, mezcla.

zirimillotia: revoltijo.

zirkin: escabullir, evitar.

zirkin egin: evadir, escabullirse, esquivar.

zirri-borrua: borrón en escritura o dibujo.

zitxal: irritante.

zitxaldu: irritar, enconar. (Lo mismo se emplea para las heridas o para los enfados de personas).

zoixa, zoi: tepe, terrón.

zoramena: júbilo, de locura.

zumitza: tiras de mimbre para cestería.

zurkatxa: escarmiento. (Baita T. Etxebarriak dakarren erara ere, **miedo** edo **temor**).